

EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA



Ildoa: Feminismoa

LEHENENGO LAUHILEKOA

Feminismoa eta kultura-aniztasuna (0,5 kreditu)

Ikastaro honen bidez, feminismoak eta kultura-aniztasunak mundu honetan dakartzaten ezinbesteko arazoak gertutik eza-gutuko ditugu, baita ikuspegi bietatik heltzeko moduak ere.

Egunak: azaroaren 14an, ostirala, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara, eta 15ean, larunbata, goizeko 10:00etatik 14:00etara

Prestatzailea: Teresa Maldonado

BIGARREN LAUHILEKOA

Baina, zer da feminismo delako hori? Hasiberriak gaira hurbilduz (1 kreditu)

Feminismoan hasi nahi duten emakume gazteei zuzendutako ikastaro honek, feminismo deituriko gizarte eta politika mugimenduan barneratzea suposatuko du, honek izan dituen lorpenak eta zailtasunak ezagutzuz; baita mugimendu honen inguruan izan diren eztabaidak ere. Gai feministei buruzko eztabaiden funtsezko elementuak ezagutuko dira eta norberaren nahiz taldearen boterea handitzea bilatuko da, honako hauek baliatuta: errealitatearen analisia egiteko tresna teorikoak, genero-harremanen trinkotzea eta emakumeen egoera.

Baldintzak: 35 urtetik beherakoa izatea

Egunak: ostegunetan, arratsaldeko 19:30etik 21:00etara, urtarrilaren 29tik apirilaren 2ra

Prestatzaileak: Norma Vázquez eta Miriam Herbón

Antolatzaileak: Basauriko Jabekuntza Eskola eta Zirt-Zart

Laikotasuna eta feminismoa

(0,5 kreditu)

Erljio-sinesmenek demokrazian izan behar luketen zeregina eztabaidagai gogorra da gaur egunean. Zalantzan jarri da “sekularizazio tesia”. Horren arrazoiak fundamentalismoen gorakada eta erlijioek fededunen eta fededunak ez direnen arteko elkarbizitza antolatzeke eztabaidetan parte hartzeko asmoak izan dira. Eztabaida horien muina emakumeen esku-bideak izan dira, baita sexu- eta ugalketa-esku-bideak ere. Feminismoaren jatorria laizizazio modernoan dago, baina emakumeek beren burua erlijio batekoak ala bestekoak dituzten fededunen kopurua handitzen dute. Ikastaroan mahaigaineratuko diren gaien artean, honakoak ditugu: Zein lotura dago feminismoaren eta laizismoaren artean? Nola ulertu behar dugu azken hori?

Egunak: otsailaren 13an, ostirala,

arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara, eta 14an,
larunbata, goizeko 10:00etatik 14:00etara

Prestatzailea: Teresa Maldonado

Gizarte politikek, emakumeak eta gizonak berdinak izatea nahi dute? (0,5 kreditu)

Feminismoak, erakunde publikoen emakume eta gizonen arteko tratu berdintasunaren aldeko diskurtso formala hobetzeko askorik ez dauka. Hala ere, aldarrikatutako helburuak eta errealitatean dauden politikak ez datoz bat: berdintasun politikak ezberdintasuna sostengatzen duen produkzio-erreprodukzio ereduaren menpean daude, emakume eta gizonen inposatutako mugak errespetatuz.

Egunak: maiatzaren 8an, ostirala,

arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara, eta gan,
larunbata, goizeko 10:00etatik 14:00etara

Prestatzailea: Isabel Otxoa

Ildoa: Munduko emakumeak elkartasunean eta elkartrukean

Hegoaldeko emakume nekazarien arazoak eta antolamendu sareak

Ipar-Hego ikuspegitik (lekukoa eta globala), esperientziak eta proposamenak elkar trukatzeko esparrua. Espazio honek emakume nekazarien arazoak, erakundeak eta aldarrikapenak ezagutarazi nahi ditu, emakumeen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak azpimarratuz, egoera eta errealitate desberdinetan.

Egunak: zehaztu barik

Antolatzailea: Mundubat, Basauriko Jabekuntza Eskolaren laguntzaz

◆ BIGARREN LAUHILEKOA

Mundua ulertzeko eta aldatzeko gakoak –II. maila– (2 kreditu)

Ikastaro honetan tokiko errealitatea eta errealitate globala aztertzeko baliabideak emango dira –ikuspegi kritiko eta feminista batetik–, diskurtso dominatzaileak ezagutarazteko eta mundu gizatiarra goa eta bidezkoagoa izatea oztopatzen duten aurreiritzi eta estereotipoak zapuzteko, guztiok –emakume zein gizon– eskubide berberak izateko.

Baldintzak: lehenengo maila egin izana edo prestakuntza edota esperientzia izatea immigrazioaren, solidaritatearen edo lankidetzaren arloan

Egunak: ostegunetan, arratsaldeko 17:30etik 19:30era, otsailaren 5etik maiatzaren 28ra

Prestatzailea: Cecilia Von Sanden

Emakumeei sexu-organoak moztea: Nortasuna, osasuna eta giza eskubideak (0,5 kreditu)

Munduko toki desberdinetako emakume eta neskatoen osasunean eragina duten praktika tradizionalak ezagutuko ditugu. Horretarako, tipologia eta igarotze-erritu desberdinak aztertuko ditugu. Afrikako, Europako eta Espainiako arazoak azalduko dira eta, azkenik, gaiari helduko zaio lehen mailako arretatik.

Egunak: maiatzaren 29an, ostirala, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara, eta 30ean, larunbata, goizeko 10:00etatik 14:00etara

Prestatzailea: Adriana Kaplan

Parte hartzeko eta konpromisorako beste jarduerak batzuk

Hemengo eta Hango emakumeak

Ikasle talde batek sortuta, eskola eremuan, kultura honetako eta hartako emakumeekin solidaritatea lantzeko helburuarekin da, ikuspegi feministatik modu autonomoan. Taldea hamabostero batzen da eskolan. Web orrialdea ere badute (www.muheresaquiya.org), bertan informazio gehiago eskaintzen dute, baita jardueren egutegia ere.

Emakumeak aniztasunean

Bildu zein jakintza eta bizipenak trukatu nahi dituzten adin eta jatorri guztietako emakumeentzako esparru irekia; emakumeen eta, bereziki, Euskal Herriko eta kanpoko emakume etorkinen egoeraz ohartzeko. Ostegunetan batzen dira, arratsaldeko 19:30ean, eskolan. Web orrialdea dute, www.muheresenladiversidad.org

◆ LEHENENGO LAUHILEKOA

Hainbat herrialdetako emakumeen komikiak ezagutzen

(1,5 kreditu)

Edozein literatur fenomenotan bezala, emakumeak komikien munduan egon gara horiek sortu zirenetik. Hala eta guztiz ere, emakumeak literatur genero honetan izan duen ekarpena gutxietsia izan da eta ez da izan aintzat hartua. Mintegi honen bidez komikiak sortu dituzten emakumeen historia ezagutarazi nahi da eta, horretarako, ibilaldi historiko eta geografikoa egingo da emakumeen komikien historian zehar; gainera, ikuspegiaren, historiaren eta marrazkiaren analisia egingo da.

Egunak: asteazkenetan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, urriaren 22tik urtarrilaren 28ra

Prestatzailea: Josune Muñoz (Skolastika)

◆ BIGARREN LAUHILEKOA

Emakumeen bizitza, eurek azalduta

(1,5 kreditu)

Emakumeen autobiografiari ez zaio behar besteko garrantzia eman, eta generoko lanen garapenetik baino ez da izan aztertua eta kontuan hartua; zehazki, literatur kritika feministatik. Hala ere, emakume askok erabaki dute, hainbat estrategia baliatuta, beren bizitza idatziz kontatzea. Ikastaro honen asmoa emakumeen autobiografiak ezagutzea da, baina, batez ere, garrantzia emango zaie Euskal Herriko emakumeek eurek kontatutako beraien bizitzako pasartei.

Egunak: asteazkenetan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, otsailaren 4tik maiatzaren 6ra

Prestatzailea: Josune Muñoz (Skolastika)

Arte garaikidea ezagutzea, emakumeen bitartez –II. maila–

(0,5 kreditu)

Egoera goitik behera aldatu zuten artista feministen lanak eta artista garaikideen obrak aztertuko dira; horrela, pentsamendu kritikoa pizteko eta gure sormena garatzeko baliabideak geureganatuko ditugu. Mintegi hau 2007-2008 ikasturteko ildo bereko mintegien jarraipena izango da, “Emakumeak artean: ibilbidea ikusgarritasunean eta ikusezintasunean zehar” eta “Arte garaikidea ezagutzea, emakume artisten bitartez”.

Baldintzak: jarraian aipatzen diren ikastaroetako bat egin izana: “Emakumeak artean: ibilbidea ikusgarritasunean eta kusezintasunean zehar” edo “Arte garaikidea ezagutzea, emakume artisten bitartez”

Egunak: apirilaren 24an, ostirala, arratsaldeko 16:30etik 20:00etara eta 25ean, larunbata, goizeko 11:00etatik 19:30era

Prestatzailea: Patirke Arenillas

Parte hartzeko ekintzak

Antzerki taldea

Talde hau iazko urtean sortu zen, “Los Monólogos de la vagina” antzezteko. Antzezlanak izandako arrakasta dela eta, aurtengo ikastaroan kabaret feminista bat antzezteko proposamena dago. Antzerkigintzan esperientzia duen edo oinarritzko ikastaroren bat egin duen edozein emakumek parte hartzeko aukera izango du. Nahitaezkoa da entseguetara etortzea eta antzezpene-tan parte hartzeko konpromisoa hartzea.

Egunak: astelehenetan, 18:00etatik 21:00etara, urriaren 27tik aurrera

Zuzendaria: Rosa Martínez

◆ BIGARREN LAUHILEKOA

Jende aurrean hitz egiteko teknikak

(1 kreditu)

Komunikazio prozesua aztertuko dugu eta elkarrekin nahi genukeen bezala komunikatzeko ditugun beldurrak eta oztopoak ezagutzen saiatuko gara. Behin oztopoak ezagututa, jende aurrean hitz egiteko teknika errazak ikasiko ditugu, entzuleak eta egoera kontuan hartuta.

Egunak: astearteetan, arratsaldeko 19:30etatik
21:30etara, urtarrilaren 27tik martxoaren 31ra

Prestatzailea: Miriam Ocio

Sexismoa mintzairan eta komunikabideetan

Hizkerak errealitatea antzeman eta ulertzeko moduan eragiten du: gure pentsaera baldintzatzen du, eta munduaren gure ikuskera zehazten du. Hizkerak ez du sexurik, baina, tradizionalki, hizkeraren erabilerak maskulinoa azpimarratzeko bidea eman du, eta unibertsal kategoriara igo du. Horregatik hizkera sexista dela diogu, emakume eta gizonen arteko diferentzia ezartzen baitu. Horrez gain, komunikabideen bitartez sexismoa eta emakumezkoen eta gizezkoen itxura estereotipua indartzen dituzten mekanismoak aztertuko ditugu.

Egunak: astearteetan, arratsaldeko 19:30etatik
21:30etara, maiatzaren 5etik 19ra

Prestatzailea: Miriam Ocio

◆ LEHENENGO LAUHILEKOA

Buruzagitza eta talde-lana

(1 kreditu)

Emakumeek eremu publikoetan buruzagitza lortzeko dituzten zailtasunen zergatiaz jardungo dugu. Halaber, generoak gure lanen, erakundeen eta beste talde batzuetako partaidetzaren boterean eta autoritatean duen eragina aztertuko dugu. Talde-lanetako dinamizaziorako, erabakiak hartzeko eta erantzukizunen banaketarako teknikak ikasiko ditugu. Azkenik, bilera bat egiteko behar diren elementuei buruzko entrenamendua egingo dugu, zailtasunak antzemango ditugu eta zailtasun horiek konponduko ditugu.

Egunak: astearteetan, arratsaldeko 18:45etik 21:00etara, urriaren 21etik abenduaren 16ra

Prestatzailea: Miriam Ocio

Emakumeentzako coaching estrategiak: Eguneroko erronka txikiei aurre egiteko tresnak

(1 kreditu)

Norbanako ezagutza eta hausnarketaren bitartez, ikastaro honetan gure eguneroko eraginkortasuna hobetzeko tresnak eskuratuko ditugu. Coaching-a norbere baliabideak aurkitu eta indartzeko, mugatu egiten gaituzten sinesmenak deuseztatzeko, norbere balore eta lehentasunak identifikatzeko eta, azken batean, autoestima eta autokonfidantza handitzeko erabiliko dugun gida izango da.

Egunak: astelehenetan, 19:00etatik 21:00etara, urriaren 27tik abenduaren 22ra

Prestatzailea: Maite Villabeitia Urrutia

Nire gorputza, ni neu

(1 kreditu)

Ikastaro honetan, emakumeok gure gorputzari buruz dugun kontzeptua aztertuko dugu, guk geuk nola ikusten dugun eta horrek gure nortasun femeninoarekin duen lotura. Gogoeta pertsonala hartuko dugu abiaburu, kontuan hartuta gizarteak emakumearen gorputzean duen eragina, geure gorputzarekin seguru egotea oztopatzen duten mekanismoak ezagutu arte. Gure gorputzarekin harreman berriak sortzen ikasiko dugu, baita bidaltzen dizkigun mezuak ulertzen ere.

• ARRATSALDEKO TALDEA

Egunak: ostegunetan, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara, urriaren 30etik abenduaren 18ra

Prestatzaileak: Norma Vázquez eta Inma Merino

• GOIZEKO TALDEA

Egunak: astearteetan, goizeko 10:00etatik 12:30era, otsailaren 10etik martxoaren 31ra

Prestatzaileak: Norma Vázquez eta Inma Merino

◆ BIGARREN LAUHILEKOA

Gure gorputza eta bere desirak esploratzen

(1 kreditu)

Sexualitateaz, gizartearen mandatuez, tabuez, erruez eta lotsez, sexualitate desberdinak eta adierazpen desberdinak adierazten dituzten gizartearen urratzez gogoeta eginez gero, gure jabekuntza pertsonalaren eta talde-jabekuntzaren maila handituko dugu, zenbait emakumek sexualitatea modu zapaltzailean bizitzea eragiten duten tresnak ezagutzuz.

Egunak: astearteetan, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara, apirilaren 21etik maiatzaren 26ra

Prestatzailea: Norma Vázquez, Miriam Herbón eta Inma Merino

Maitasuna eta emozioak: beharrezkoak diren hurbiltzeak eta distantziak

(0,5 kreditu)

Ikastaro honetan, dimentsio historikoa eta kulturala kontuan hartzen duen maitasunaren eta emozioen irakurketa feminista egingo dugu. Maitasuna genero-identitatearen eratzean eta emakumeen mendekotasunean oinarritzko elementua da eta maitasunak, berak, eragiten dizkigun kontraesanek eta tentsioez gogoeta egitea ahalbidetzen du, baita berdintasuna lortzeko eman beharreko pausuen proposamenez gogoea egitea ere.

Egunak: otsailaren 6an, ostirala, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara, eta 7an, larunbata, goizeko 10:00etatik 14:00etara

Prestatzailea: M^a Luz Esteban

Lilalagun

Badakizu euskeraz hitzegiten baina ez duzu norekin? Euskera ikasten ari zara eta praktikatu behar duzu? Beste pertsonekin euskeraz hitzegiten duzunean, ez zara seguru sentitzen?

Jabekuntza eskolak euskeraz hitzegiteko aukera ematen dizu, emakumeengan eragina duten gaiei buruzko eztabaidaren bitartez. Egunero euskera erabiltzen duten emakumeak eta euskera ikasten ari diren emakumeak, edota hitzegiteko ohitura ez dutenak, elkar daitezen bilgunea sortu nahi dugu. Euskeraz hitzegiteko pertsonak ezagutu eta konfiantza eskuratu nahi baduzu, animatu eta etor zaitez!!

Egunak: Jabekuntza Eskolan galdetu



Ikastaroaren aurkezpena eta hasiera

Ikastaroa aurkezteko eta hasteko ekitaldia egongo da, jende guztiari zuzendua, eskolaren egitura, ikastaroak, ekintzak eta partaidetza-taldeak aurkezteko. Bertaratzea kontuan hartuko da ikastaroetan itxaron-zerrenda baldin badago.

Data: Urriaren 20a

Argibideak lortu eta izena emateko

Tel.: 944 260 340

jabekuntzaeskola@basauri.net

iibarrondo@basauri.net

Matrikula

Plaza kopurua mugatua da. Talde bakoitzerako, gutxieneko pertsona kopurua hamarrekoa da. Izena emateko izena-emate orria bete beharko da (web gunean deskarga daiteke) eta ordainketa (5 euro ikastaro bakoitzeko –% 50eko deskontuarekin Oinarrizko Errenta jasotzen dutenentzat–) honako haue-tan egin beharko da: Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren egoitzan (Axular, 28) edo ordainketa egiteko jarritako kontu-zenbakian, 2095-0611-07-2028011294, abonua-agirian izena, bi abizen eta “eskola” hitza agertu beharko dira. Matrikulazioa ez da onartuko izen-emate orria bete eta ikastaroa ordaindu arte. Dirua ordaindutakoan, baxarik izanez gero, ez da dirurik itzuliko.

Izena emateko epea

- irailaren 29tik urriaren 10era

**Izena emateko denboraldian jendeari arreta egiteko ordu-
tegia:**

Goizez: Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik
14:00etara

Arratsaldez: Astearte eta ostegunetan 16:00etatik
20:00etara



**IKASTAROETARA DATOZEN ETA APROBETXATZEN
DITUZTEN EMAKUME UNIBERTSITARIOEI KREDITUAK
EMANGO ZAIZKIE**